



## Endika Fernandez. "Ez dago nahi ez duzunean bidaiatzea baino gauza eskasagorik"

2005eko maiatzaren 29an irten zen Ermutik eta 2006ko ekainaren 22an bueltatu zen Panamerikana ibilbidea egin eta gero. Alaskan hasi zuen bere bidaiak eta Argentinan bukatu, Ushuaian. Bidaiaren zati handiena bizikleraz egin du, nahiz eta bestelako garraioetan ere ibili den.



**-Bidaia maitzaren 29an hasi zen baina aurretik hasi ziren prestatzen. Zenbat denbora lehenago?**

Irten baino 3-4 hilabete aurretik hasi nintzen prestatzen. Bakunen kontua, AEB-etan sartzeko bisa eskatuen eta bizikletaren ekipamendu gehiena Alemaniatik ekarri nuen. Bizikleta Orbeak oparitu zidan, hibridoa da (Mendirako eta errepidirekoa). Batez ere hori izan zen aurretik egin beharrekoa.

**-Nola sortu zen bidaia hau egiteko ideia?**

Betidanik izan dut gustuko bidaiatzea, lana utzi nuen bidaia bat egiteko. Hainbat plan nituen buruan bueltaka. Mongolia zaldiz zeharkatu, jeep ibilgailu bat prestatu eta Afrika zeharkatu, baina horretarako beste hiru pertsona aurkitu behar nituen, gero bizikletaren kontuan hasi zen eta interneten begiratzan Panamerikana ibilbidea egiteko jende bila zebiltzala ikusi nuen. Harremanetan jarri nintzen eurekin eta kasualitatez ermuarra zen hori egin nahi zuena ere, nik hanka apurtu eta guztia airean geratu zen. Hala ere, plana gustatu zitzaidan eta nire kabuz Panamerikana egitea erabaki nuen, Alaskatik Ushuaira munduaren amaierara (Argentina).

**-Zergatik bizikletaz?**

Gogoko izan dudalako betidanik. Motorrez ere egin daiteke baina niretzat ez dauka emoziorik, bizikletak esfortzua eskatzen du eta gainera jendeak bizikletaz ikusita harreman ona egiten dizu, motorrean ez horrebeste.

**-Egunean 100-110 kilometro egiteko prestaketa fisikoa behar da?**

Ni ez naiz sekula bizikletan asko ibili, baina egunero ibilita berehala egiten da gorputza. Gainera lasaitasunez egiten nituen kilometrorak: 25 kilometro egin, geratu, paisaia begiratu, argazkiak egin, irakurri eta aurrera. Oso ezberdina da hemen 110 kilometro egitea edo han egitea.



Baja Californiako basamortua zeharkatzen egindako argazkia; guztira 7.000 argazki inguru egin ditu Endikak.

**-Egunean 100-110 kilometro egiteko prestaketa fisikoa behar da?**

Ni ez naiz sekula bizikletan asko ibili, baina egunero ibilita berehala egiten da gorputza. Gainera lasaitasunez egiten nituen kilometrorak: 25 kilometro egin, geratu, paisaia begiratu, argazkiak egin, irakurri eta aurrera. Oso ezberdina da hemen 110 kilometro egitea edo han egitea.

**-Egunean 100-110 kilometro egiteko prestaketa fisikoa behar da?**

Ni ez naiz sekula bizikletan asko ibili, baina egunero ibilita berehala egiten da gorputza. Gainera lasaitasunez egiten nituen kilometrorak: 25 kilometro egin, geratu, paisaia begiratu, argazkiak egin, irakurri eta aurrera. Oso ezberdina da hemen 110 kilometro egitea edo han egitea.

Bizikleta gainean 60 kilo neramatzan eta abiadura ere, oso ezberdina da.

**-60 kilo horietan zer zeneraman bizikleta gainean?**

6 poltsa. Aurrean bi poltsa, 15 litrokoa (kapazitatea) bakoitza, eskulekuan 6 litroko poltsatxo bat, atzean 20 litroko bi poltsa eta maleta bat 30ekoa. Aurreko ezkerreko poltsa sukaldea zen (butanotxoa, kazolak, edateko ura bihurtzekoa, eta nezeserra), eskumako aurreko poltsan bizikletarako ordezkio piezak neramatzan eta multi-banda irratia. Atzeko bi poltsetan arropa neraman eta maletan kanpin-denda, lozakua eta esterilla bat.

**-Nola egiten da urtebeterako maleta, kontuan izanda oso tenperatura ezberdinetan ibili zarela?**

Bai Alaskan bero-boladak

harrapatu ninduen, 35 gradutan nengoan, handik bi egunera elurretan 5 gradu zero azpian nenbilen. Hala ere, erraza da. Aurrean dena jartzten duzu eta behar-beharrezkoa dena aukeratzen duzu. Badira gauza batzuk agian beharko ditudanak... Horiek behar diren momentuan bertan erosi eta kitto! Ez dago besterik.

**-Zenbat lekutan egon zara?**

Bidaia Alaskan hasi zen Anchorage eta Ushuaian (Argentinan) bukatu. Guztira 14-15 estatutan egon naiz: Alaska, Kanada, Estatu Batuak, Mexiko, Guatemala, El Salvador, Honduras, Nikaragua, Costa Rica, Panama, Kolonbia, Ekuador, Peru, Txile eta Argentina.

**-Zer da ezinbestekoa horrelako bidaia bat egiteko?**

Gogoa eta dirua. Bestalde,

norberaren beldurrak kentzea da inportanteena. Beti pentsatzen duzu zorokeria bat dela. Nola utziko dut lana eta bidaiatzera joan? Zer gertatuko da bueltatzen naizenean?... Horrelako beldurrak beti daude hor. Hala ere, norberak nahi duenagatik ahalik eta gehien borrokatu behar duela uste dut.

**-Hainbeste denboran, izan duzu bidaia etetzeko tentaziorik momenturen batean?**

Noski, bizitzan bezala momentu latzak ere izan dira, eta bidaiaren erdi aldera bueltatzeko egon nintzen, baina bueltatzearrekin ez nuen ezer konpontzen. Gainera, ordura arte dena oso ondo joan zen, jende pilo bat ezagutu nuen, esperientzia oso ona izan zen eta aurrera egitea erabaki nuen. Askotan ondo ez bazau ere, asko ikasten da. Oso inportantea izan da nik bidaiari ez nuela inolako presiorik, nahi nuen momentuan hegazkin-txartela erosi eta bueltatzeko aukera nuen eta horrek izugarriko askatasuna ematen du. Ez dago gauza eskasagorik, nahi ez duzunean

bidaiatzea baino.

**-Zeintzuk alderdi on nabarmenduko zenituzke?**

Ezagutu dudan jendea eta norberaren azterketarako aukera. Hainbeste denbora bakarrik egotea oso positiboa izan da eta ni neu hobeto ezagutzeko oso baliagarria. Egoera larrietan eta beldurrraren aurrean uste dut zerbait ikasi dudala.

**-Jende ezberdin askorekin egoteko aukera izan duzu, zerk eman dizu atentzioa?**

Herrialde bakoitzean jendea oso ezberdina da, nahiz eta bizitzan guztiok ditugun ardurak azkenean oso antzerakoak diren. Eguneroko portuak oso ezberdinak dira, lagunetik jarriera ezberdina sumatu dut. Berdin zaie nondik zatozen, nora zoazen, zer zaren eta zenbat diru daukazu, euren adiskidetasuna ezerekin truke eskaintzen dizute. Hartu-eman oso naturala da.

**-Egoera larriak ere aipatu dituzu...**

Azken hiru asteetan klimaren kontua nahiko larria izan zen. Haizea 80 kilometro or-

**"Beldurrak dira txarrena"**

duko, 5 gradu zero azpitik, sentazio termikoa 14 gradu zero azpikoa zen. Bizikleta gainean oso gogorra izan zen bai fisikoki eta baita psikologikoki ere.

**-Zer izan da txarrena?**

Bidaian eta egunerokotasunean beldurrak dira txarrena. Existitzen ez den zerbait beldurra izatea. Beldurra norberak sortzen du eta hor dago uxatu ezinik. Lurrikara, ekaitza, hotza, lapurretak... Gauza fisikoak dira eta pasatzen dira, baina zure beldurra, hotza pasatu behar duzula bada, hotza baino okerragoa da beldur hori.

**-Zelan moldatu zara animaliekin?**

Animaliak ikustea atsegin izan dut beti. Alaskan hartzak ikusi nituen oso gertutik gainera, urtxintzak, azeriak, Caribuak, otsoak, sugeak, tarrantulak, eskorpioiak. Bizikleta oso isila da eta horregatik ikusi ahal dira animaliak. Bitxia da gainera, erasotu nindutenak txoriak izan ziren-eta. Habiak zituzten leku batetik pasatzen nindola, kaskora zetozen.

**-Aurrez prestatutakoak ez du zerikusirik egunero gertatzen denarekin ezta?**

Ez. Helburu edo errefrente bat izatea ondo dago baina ez itsu-itsuan, beti ere aldatzeko malgutasunarekin.

**-Beraz, egun bakoitza esperientzia ezberdin bat da?**

Egun bakoitza eta minutu bakoitza. Hala ere oso argi neukan ondo pasatzera nint-

doala, hori zen ezinbesteko baldintza, nik ez nion inori ezer erakutsi behar eta.

**-Hizkuntzarekin nola moldatu zara? Euskaraz aritzeko aukerarik izan duzu?**

Euskaraz oso gutxitan aritu naiz, Tijuana, Guatemalan eta Txilen. Bestela ingelesez eta gazteleraz moldatu naiz.

**-Munduan zehar jende asko dabil bizikletaz bidaiatzen?**

Bizikletaz, motorrez, jeepean... Batez ere alemaniarak, holandarak, belgikarrik... Azken finean herrialde aberatsetako jendea dabil. Jende gazte asko gainera.

**-Bizikleta zure garraio bide nagusia izan da eta kanpin-denda zure etxea, baina ez bakarra?**

Lekuaren arabera. Esaterako Estatu Batuetan, kanpinak oso ondo daude presatu eta oro har ez dago segurtasun arazorik. Erdialdeko Amerikan segurtasunagatik gehienetan hostaletan eta hoteletan egon nintzen. Txilen eta Argentinan kanpin dendan eta Patagonian, gehienetan leku estali bat topatu behar izaten nuen, tenperatura oso baxuak zirelako. Bizikletaz gain, hegazkinez, itsasontziz, autobusez, kamioiez... Denetan ibili naiz.

**-Zer irakatsi dizu bidaia honek?**

Nire burua hobeto ezagutzen, beldurrak kentzen eta beste gauza batzuk baloratzen.

Alazne Aiestaran



Ermuan aurkeztu zuten ikuskizuna prestatzen hiru hilabetez aritu da.

**"Nere burua hobeto ezagutu dut bidaiari esker"**

**ILEAPAINDEGIA**  
**Izaskun**  
 Goiencale, 9 (Plaza San Martin)  
 48260 Ermua Bizkaia  
 Tel. 943.17.66.90  
**ILEAPAINDEGIA**

**Solozabal estankoa**  
  
 torrekua z/g  
 Tel/Faxa. 943 17 07 33  
 fax publikoa

**PUB YOMY**  
  
**Zubiaurre kalearen bihotzean**

**MALLA ileapaindegia**  
  
 Probaleku B. behean  
 943 17 18 50

komunitateak aseguruak  
**San Pelayo**  
 aholkularitza fiskal eta juridikoa  
 Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
 San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**DROGETENITURRI EUSKAL BIRUSA**  
 943 17 93 50  
**Elexoste**